
LEGINETXE'TAR MANU

Nor ete dogu euskal-abizena daroan Manuel Leginetxe au?

Idazle ospetsua, euskotarra ta bizkaitarra, Euzkadi'n eta arago entzutetsua.

Bere gai nagusia ta berarizkoa, errien arteko guda-burrukak dira eta ikuspegi orregaz da bialdua ta mezulalaria.

Bere idaztiak, liburuak, eta idazlanak sarritan sarituak izan dira, olako leiaketetan garaille izan dalako. Albistarien arloko sariketan be "Ortega y Gasset" saria irabazi dau, iparringietan egin dauzan idaz-lanakaitik.

Baiña berak esaten dauan lez, geien onartzen dauan saria "Bizkai'ko Idazti-Saltzailleen Urrezko Idazkorta" da.

Gernika-ondoko baserri baten, Arratzu ko Belendiz'en jaio zan, 1941n. urtean. Berrogei ta amaika urteko gizon egiña dogu ba.

Ziur-ziur, euskeraz berbetan be jakingo dau, baiña bizitzako ardurak eta zeregiñak atera eben erri orretatik eta lenengo Portugalete ra eta gero Bilbao'ra joan zan.

Bere ibilbear orreik dirala-ta ez dau izan astirik bere euskerea lantzeko eta euskeraz idazteko bestean gure izkuntza eskuratzeko.

Margolaria be ba-da eta bere baserriaren antzekoak diran etxeak margotu dauz, txakur txiki bat alboan eta ke-zulotik ke-moltsoa urtetan agiri dirala, inguruko zelai eta mendietan orri orlegiz beterik, udabarrian eta udan pagadiak kerizpe atsegingarria emoten dabela.

Lege-Jakintza ikasten asi zan Deustu'ko Ikastetxe Nagusian eta batera Gran Via aldizkarian idazten eban. Emen aurkitu ebazan Luciano Rincon eta Angel Ortiz idazle ospetsuak, baiña gure Leginetxe'k lan-toki zabalagoa nai eban eta Bilbao'tik Valladolid'era urten eban eta emendik Madrid'era. Izparlari on batek diñoan lez, idazleen munduan agertu nai eban.

Guda-albistari izateko erabagia artu eban. Ordurako mundu zabalean zear joan-etorri asko eginda egoan. Bein baten sei illebeterako asmoaz joan eta iru urteko ibillaldia egin eban. Lau lagun joan ziran eta iru etorri, euretariko bat ibillaldi orretan aienatu zalako.

Manu berak diñoskun lez, "Vietnam'era edo India edo Pakistan'era norbait eltzen danean, ikusten dauzan gudak lenengoa izan ezkeru, zorabiatuta lez izten dau izparlaria".

J.J. Gamboa albistariak itandu eutson bein:

– Zein da zure eritxia Serbia ta Kroatia'ren arteko burrukari buruz?

Itzalezko basati-guda dala. Komunistak ezarri ebezan erri-mugak ezereztu dira eta abertzaleak, berezko gauzea dan lez, euren burua zaindu eta euren jokabideak agertzen dabez.

Gure Leginetxe'tar Manu udan ikusi zeinke pitxar otz baten aurrean, nasai-nasai ta kontu-kontari, bere gazte-aldiko guda-izparlarien jardunak edesten zaintza non egiten eban eta gudari barrien emaztegaii eskutizak idatzi-bearra beteten ebalu agertzen.

LETONA'K

